

antzerkia

■ Bilbo

● **Compañía T de Teatro** taldeak 'Hombres' lana antzertuko du As-toria antzokian irailaren 15era bitartean. Emanaldia 20:00etan izango da.

■ Iruñea

● 'El privilegio del tripartito' lana antzertuko du Gaiarre antzokian 20:00etan. Emanaldia 20:00etan izango da.

dantza

■ Lesaka

● **Tantirumairi** dantza taldearen emanaldia plazan iluntzeko 20.00etan.

musika

■ Araba

● **Arabako XV. Aste Korralaren** barruan kontzertu ugari izango dira hainbat herritan. Gasteizko San Vicente parrokian Albaniako koru batek abestuko du. Arganzonon Argentinako batek, Armiñonen letoniarrak ariko dira, Lantziegon moldaviarrak, Eltziegon Poloniako koru bat, Labastidan errumaniarrak, Amurrión Errusiako abesbatza bat eta Zalduonden, azkenik, Singapurgoa. Kontzertu guztiak 20:30etan hasiko dira.

■ Askain

● **Euskal kostaldeko musika** jaildiaren barruan Rafael Puyana eta Baiona-ko orkestrako bakarlariekin txanda izango da gaur. Cabezón, Scarlatti eta De Fallaren obrak joko dituzte. Emanaldia 21:00etan hasiko da.

zinema-bideoa

■ Barañain

● **Alex Mendizabal** eta **Senior Orkestrak** hainbat zinemagile esperimentalen irudiei musika jarriko diete. Kultur konplexuko plazan izango da gaueko 21:00etan.

■ Bilbo

● 'Du Skal Aere Din Hustru' (Etxeko jabea / Zure emazte ondratuko dudu) Carl Theodor Dreyerren (Danimarka, 1925) filme mutua eskainiko dute arratsaldeko 17:00etan Arte Ederretako Museoa.

■ Iruñea

● 'Un lugar en el mundo' filmea izango da ikusgai gaur arratsaldeko 20:00etan Gaztetxean.

hitzaldiak

■ Zerain

● **Iparaldean laborantza** edo nekazaritza gaiaren inguruan hitz egingo du Mixel Berhögogirgoinek. Hitzaldia arratsaldeko 20:30etan hasiko da Kultur Etxean.

ikastaroak

■ Aretxabaleta

● **Dantza ikastaroa** antolatu du Loramendi Euskara Elkarte Tril emakume taldeak. Ikastaroa hilaren 6tik 29ra arte, hau da, Sanmiguelak hasi arte, izango da eta Beinke-Loramendi dantza herrikoia erakutsiko da. Ikastordua astelehen eta ostiraleroko arratsaldeko 20:00etatik 21:00ak arte. Izen emateko jo Loramendi elkartera (Basabe bidea, 2) edota 77 09 70 telefonora.

Fitxa: Miarrizteko Maitaldia dantza festibala. **Lana:** Floilege de Surprises. **Baleta:** Marseillako Balet Nazionala. **Koreografoa:** Roland Petit. **Eguna:** Irailak 8. **Tokia:** Miarrizte.

Triste atera ginen

IGANDE arratsaldean Miarrizteko Maitaldia dantza festibalean Roland Petit frantses koreografoa genuen oraindik errege. Osti-rarseille derituzon taldeak *Coppelia* ikusgarria eman bazigun, igande honetan hiru partetan banaturiko agerraldia proposatu zigun *Florilege de Surprises* tituluz. *Coppelia* arrakastatsua izan bada (arrazoi guztiz), igandekoa gure ustez malerusi ez da hain interesgarria gertatu.

Et la lune descend sur le temple qui fut deitutu lehen partean, sei mutilek eta neska batek osaturiko multzoak neoklasiko mugimendu batzuen gainean eraikitako dantza erakutsi digu Claude Debussyren *Images* eta *Estampes* obren zati batzuen gainean oinarriturik. Taldeak eta Roland Petit-en koreografiak musikaren ilustrazio soila baina ederra eskaini digute. Argi txuri eta jantzi urdin argiak baliatuz, gauze gertatzen da ballet hau eta bertan ilargia emazte eginda (hori suposatzen dugu) lurrera jausten da, gizonen artean jolasteko eta ibiltzeko. Hasieran koreografia

miresgarria bada, indar handikoa eta amakizunez betea, hogeita hamar minutu pasatu eta bukaera heltzean konturatzen gara zinezko garapen gabe gelditu dela obra. Hala ere, Francesca Sposi solistak bere beso eta gorputz enberraren bizitasunari esker zinez distirarazten du taula ikuslearen pozarentzat.

Pausaren ondoren, hainbat boleroz konposatutako baleta eman digu taldeak. Bolero lehenaren gainean oinarriturik, jolasak, binakako eta banakako zatiak azaldu zaizkigu, Beethoven, Debussy, Mozkowy eta nola ez Ravelen partiturek lagundurik. Gogoan geldituko zaiguna Juliano Peparaniren banakako zatia da, zinez musikaria ikusi dugulako dantzari hau, teknika on bat lagun duelarik. Bizkitartean, Lucia Lakarra eta Massimo Murrentzat Roland Petit-ek egindako koreografiak nahiko hotz utzi gaitu. Bistan da Lakarren teknika eta bukaren eramairekiko eramanak eramanak eramanak borroka ikusgarriak, Ravelen *Boleroa* ahan-tzi gabe, izugarriko indarra daukatela. Baina zer ekartzen dio bolero honek dan-

tzari Maurice Bejart eta Odile Duboc-en bertso fin eta tentsioz beteak ikusiak ditugularik?

Ikusgarria bukatzeko *Mere Mediterranee* deitzen den balet baten zatik batzuk izan ditugu ikusai. «Musika zaharren edo garai-ikideen gainean oinarriturik, dantzarazi nahi izan ditut aspaldidanik gure kultura aberasten duten zibilizazio nagusiak», dio Roland Petit-ek dantzaldiaren aurkezpen liburuxkan. Koreografo frantsesak bere osotasunean baleta erakutsi izan balu hobeto ulertuko zen, gure ustez, baletaren erranahia. Baina zatikaturik bitxia irudituko zaigu eta, hori aski ez balitz, koreografia eta musika ezberdinen aukera nahasiek jostura handirik gabeko ikusgarri desorekatu batera eramanez. Hala eta guztiz ere, berriro Juliano Peparaniren energiak eta dantza modernoari adaptatzeko ahalmenez ohartu gara. Azkenik, emanaldiaren bukaera farandolako ikasle batzuen aurkezpen serio bat besterik ez zela irudituko zaigu. Jendean txalo beroak ez zela irudituko ere, airtortu behar da gure aldetik triste atera garelako ikusgarri honetatik... Non gelditu ote da *Le jeune homme et la mort* balet gogoangarri biziari lotutako gogoeta sakon eta bortitza proposatu zigun sortzailea?

Pantxika Telleria

■ Basauri

● **Arte dramatikoa** ikasketak egin ahal izateko izena hilabete honetan eman dezakezue Basauriko Antzerki Eskolan. Informazio gehiago 449 06 65 telefonon.

■ Beasain

● **Hiru ikastaro ezberdin** antolatu ditu Beasaingo Udaleko Kulturkide Batzordeak. Elikagaiak eta kontserba lehenak, Euskal literatura idazleen esanetan bigarrena eta Lana: kontratu motak eta autoenplegua azkenekoa. Izena emateko hilaren 18ra arte izango da zabalik. Informazio gehiago Kulturkideko telefonon: 16 18 40.

■ Donostia

● 'Euskal gatazkari aurre egiteko' balizko irtenbideak eta hezitzailearen jarraieraren erroka honen aurrean izenburuarekin ikastaro motz bat izango da irailaren 23 eta 24an Filofofi-Letra eta Zientzietako Elkar-gogoren eskutik. Informazio gehiago 45 00 15 telefonon.

● **Musika tresnen ikastaroak** Jazzle elkartean eskutik. Jazzle musika elkartean musika tresna hainbat jotzen ikasteko ikastaroak antolatu ditu. Tronpetak, ahotsa, pianoa, gitarrak, kontrabaxua, baxua, bateria, solfeoa, comboa eta armonia ikastaro jarraitetan ikasi ahal izango dira. Bestetik, ikastaro bereziak ere izango dira: musika afrokutarra, jazzaren historia, disko grabaketa, musika elektroakustikoa, bateria eta master class hain zuzen. Ikastaro hauetan guztietan parte hartzeko izena hil honen 6ra arte eman dezakezue elkartean egoitza (Aldakonea, 12). Informazio gehiago 28 10 71 telefonon.

■ Durango

● **Eskimotaje** ikastaroa antolatu du Urdaybi kirol elkartek. Ikastaroa hilaren 16tik 20ra bitartean izango da igerilekuan. Izen ematea Pinondo etxeko bulegoetan egin daiteke.

■ Elgoibar

● **Haurrentzako buztin ikastaroa** antolatu du Udalak. Irailaren 9an hasiko da ikastaroa eta urriaren 2an amaituko da, astelehenean ostegunera arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Argibide gehiago jaso

nahi duenak Aita Agirre Plazan, Behean (ezkerrean) galdetu. Ikastaroa Elgoibarko Udalaren eta Foru Aldundiaren dirulaguntzaz egingo da.

■ Gasteiz

● **Nekazaritza buruzko lau ikastaro** antolatu ditu EHNE-UGAVek (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak). Nekazari inguruarekin harremana duten langabetu gazteentzako -baserritarren seme-alabak edota gaiari buruzko ikasketak egin dituztenentzako - ikastaroak dira. Garapenari buruzko lau ikastaro (herrialdeko bat) eta jardunaldi bat egingo dira etorri. Horrez gain, Nekazaritza Ekologikoari buruzko hiru eguneko jardunaldiak ere antolatu ditu sindikatuak. Ikastaroak 100 ordukoak izango dira, lau aste, 30 ikasle izango dute gehienek eta urria-azaroan egingo dira. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko nahi duenok beza 945 - 27 54 77 telefono zenbakira 09:30etatik 14:30ak bitartean. Idoia Romano da EHNE-UGAVeko Formazio Saileko arduraduna.

● **Sentsibilizazio ikastaroa** egingo da hil honen 27tik 29ra Bergarako UNE-Dek antolaturik. Ikastaroa haurren osasun eta heziketan lanean ari direnei zuzendua dago. Informazioa (943) 76 13 42 telefonon.

■ Lezo

● **Mintegi eta Lorategi lanterako ikastaroa** antolatu du Lezoko Lanbide Hastapeneko zentruak. Ikastaroa 16 eta 20 urte bitarteko gazteentzat da. Izena eman edo beste informazioen bat nahi duenak Lezoko Udalerako jo behar du, Gizarte Ongizate departamentura. Telefonoa: 52 10 94.

■ Orio

● 'Euskaraz Gazte literatur lehiaketa' antolatu du Orioko Udaleko Euskara Batzordeak. Lehiaketak bi modalitate dituzte: Ipuhiaketa olerkia (edo bertsoak). Parte hartzeko oriotarra behar da izan, edo Orion bizitzea eta 14 eta 29 urte bitartean izatea. Lanak Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar dira kartazal itxi batean urriaren 31a baino lehen.

■ Urola kosta

● **Eraikuntza eta ostalaritza ikastaroak** antolatu ditu Urolako Kostako Lanbide Hastapeneko Zentruak. Eraikuntzan bi dira ikastaroak: igeltseritza eta margoketa. Ostalaritzan, berriz, sukaldaritza eta tabernari eta jantoki zerbitzua. Ikastaro hauek Urola kostako 16 eta 20 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduko daude, bereziki graduatu eskolara ez dutenei edo ikasketak utzi eta ofizio bat ikasi nahi dutenei. Informazio gehiago Lanbide Hastapeneko Zentruaren telefonon (13 04 28) edota Udaletxeko Gizarte Zerbitzuan. Izena emateko aukera irailaren 27ra arte egongo da zabalik.

■ Usurbil

● **Lanbide Hastapenerako ikastaro berriak** antolatu dituzte Usurbilgo Udalak Lasarte-Orialde eskualdeko herriek eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak. Zazpi dira ikastaroak: margogintza, gozogintza, serigrafia, mintegi eta lorategiak, iturgintza, autoren txapa eta pintura eta autoren mekanika. Ikastaroak ikasketarik gabe edota langabezia daukenden 16-19 urte bitarteko gazteei zuzenduko daude. Izen ematea Usurbilgo sozio-laborearen bulegoan egin daiteke goizeko 9:00etatik 13:00ak arte irailaren 13ra bitartean.

■ Zizurkil

● **Fraisoroko ikastaro berriak** abian dira jada. Hemen duzue zerrenda: Gazteak baratzagintza eta loragintza enpresarako prestatzea (urriaren 7tik abenduaren 5era). Gazteak abere hazkuntza enpresarako prestatzea (urriaren 14tik abenduaren 13ra arte). Mapa topografikoak eta lur neurketak (urriaren 21etik azaroaren 29ra). Zergak, aseguruak eta nekazaritza alorreko laguntzak (azaroaren 4tik abenduaren 5era). Behien elikadura, erabilera eta eritasunak (azaroaren 12tik urtarrilaren 23ra). Behien elikatze, kudeaketa eta erabilera informatizatua (azaroaren 18tik abenduaren 20ra). Informazio gehiago 69 21 62 telefonon.

erakusketak

■ Añana-Gesaltza

● **Herriko udaletxean** Carmen Lopez Castilloren *En el valle salado* erakusketa izango da zabalik urriaren 7ra arte.

■ Bilbo

● **Errekalde, area 2** (Mazarredo Zuzmardia, 35-2). Jose Francisco Vazquez, Garikoitz Fraga, Iñigo Fernandez de Negraro eta Paulo Ansaies Monteiroren 'Broa de mel'. Irailaren 21era arte.

● **Espacio de los Mundos** (Simon Bolivar, 17). Mixel Mitxelena Otegiaren *Los Graffitis* argazki erakusketa. Erakusketa hau urriaren 8ra arte izango da zabalik.

● **Arte Ederretako Museoa**. Paisaia konposatutik figuradun paisaia. Irailaren 22ra arte.

● **Arte Ederretako Museoa**. Eduardo Arroyoren *Suite Senefelder and Co* erakusketa irailaren 29ra bitartean.

■ Donostia

● **DV. Galeria**. Atzo inauguratu zen Iñigo Royo, Sophie Calle, Leonel Moura eta Paloma Navaresen *Collecciones imaginarias* erakusketa.

● **Art Co galeria**. (Secundino Esnaola, 3) Paco Aguilar Malagako pintorearen erakusketa inauguratuko da gaur arratsaldeko 19:30etan. Bere azken bi urteotako lanak aurkeztuko ditu Aguilarrek.

● **Koldo Mitxelena kulturunea**. Hannah Collinsen 'In the course of time' erakusketa irailaren 14era bitartean. Igandeetan itxita dago.

● **Gipuzkoako Argazkilarik Elkarte** (San Juan kalea, 27). Javier Brizuelaren paisaiak. Irailaren 11ra arte.

■ Elgoibar

● **Kultur Etxea**. Gabriele Basilicoren 'Itas Hirieta. Irakuspegiak' argazki erakusketa. Irailaren 14a arte.

■ Getxo

● **Algortako Kultur Etxea**. *Komikiak 100* izeneko erakusketa zabalik egongo da gaurdanik datorren ostiralera arte.